



Andoingo Udala

KIUBek aditzera ematen du

EKA/ACUV kontsumitzaileen elkarteak jakinarazi du ibilgailu kontzesionarioen kartelak bere jokabideaz erasan dituen herritarren defentsarako erreklamazio bat aurkeztuko dela. Horretarako, egoera hau pairatzen ari direnak dokumentazioa bidaltzera animatu nahi ditu, norbanako bakoitzaren kasu zehatza azter dadin.

Ibilgailu bat erosi al zenuen 2006 eta 2013 urteen artean? Erne, bada! Izan ere, Auzitegi Gorenak berriki ebatzitako epaiaren arabera, 10 milioi bezerori eragin liezaioke, eta, beraz, prezio totalen ezarritako %10eko gainkostuengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izan dezakezu, 2.000 eta 9.000 € artean, autoaren modeloaren arabera.

Salerosketa-kontratuen igoera hau ulertzeko, 2015era itzuli behar dugu, eta auto saltzaileen kartelari erreparatu, hain zuzen ere. Urte horretan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) 30 enpresa inguruk informazio konfidentziala trukatu zutela salatu zuen hainbat milioi autoren salmentaren prezioak ituntzeko. Egintza horrek fabrikatzaile eta saltzaileen arteko benetako lehia desagerrarazten zuen, prezio, eskaintza eta deskontuen gaineko datuak trukatu.

Horrela, gutxieneko prezioak bermatu zituzten, inork aurka egin ez ziezaien, salneurriak modu artifizialean igota. Eskandalua nabarmenduta, MLBNk 171 milioi euroko zigorra ezarri zien, eta 2019ko abenduan Auzitegi Nazionalak berretsi zuen. Finean, Auzitegi Gorenak gaitzetsi egin ditu akusatutako 15 enpresek jarritako helegiteak, eta hori izan da erreklamazioen atea ireki duen gakoa.

Hartara, kaltetutako herritar orok, erreklamazioa egin ahal izateko, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu: ibilgailuaren erosketa-faktura, salerosketa-kontratua, renting edo leasing kuota ordaindu izanaren egiaztagiria, hala badagokio, eta ibilgailuaren fitxa teknikoa.

EKA-ACUVren harremanetarako datuak:

Askatasunaren Hiribidea, 7-2. H.

20004-Donostia.

Telf.: 943423993.

Posta elektronikoa: donostia@eka.org